

Garbiñe Aranburuk, Ainhoa Etxaidek, Oihane Zabalak eta Ander Bilbaok solasaldiak emango dituzte apirilaren 14an, Igorren. Sindikalgintza XXI. mendean, lan baldintzak eta burujabetza izango dira hizpide izango dituzten gaiak, besteak beste.

Laugarren urtez jarraian, Ernai eta Aitzina gazte antolakundeek [Gazte Akelarrea](#) prestatu dute apirilaren 13, 14, 15 eta 16rako.

Aurtengo ekimena, berezitasun bezala, martxa eta topagunearen nahasketa bat izango da. Izan ere, apirilaren 13an mendi martxan abiatuko dira milaka gazte arratsalde Zornotzatik, eta gauetz helduko dira Igorrera, bertan bi egunez egoteko. Apirilaren 16an Gernikan ospatuko den Aberri Egunera joango dira.

Igorreko egonaldian, hainbat jarduera prestatuko dituzte; hitzaldiak, tartean. Hizlarien artean, LABeko zenbait ordezkari egongo dira. Hauek dira, apirilaren 14an, sindikatuko kideek emango dituzten solasaldiak:

-Garbiñe Aranburu. [“Sindikalgintza XXI. Mendean”](#) . 11:00-12:00, kultur etxeako erakusketa gelan.

-Oihane Zabala eta Ander Bilbao. ["Lan baldintzak borrokatu"](#) .15:30-17:00, Gaztetxeako Zineman.

-Ainhoa Etxaide. [“Txanpon beraren bi aldeak: independentzia eta langile herria”](#) . 17:00-19:00, kultur etxeako aretoan.

—